

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak partzialki onetsi du “Valle de Odieta” abeltzaintza-enpresaren errekurtsioa, eta Caparrosoko granja handitzeko ingurumen-baimena izateko eskubidea aitortu du

Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ontzat hartu du epaia, eta iragarri du Nafarroan makrogranjak kokatzea galarazteko esparru juridikoa lortzeko lanean jarraituko duela

Astelehena, 2021ko Urtarrilaren 4a

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJN) partzialki onetsi du “Valle de Odieta” abeltzaintza-enpresak 2018ko ebazpenaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa; ebazpen horren bitartez, 2018an ukatu egin zitzaion 7.200 behira bitarte ezartzeko instalazioak handitzeko eskaerarako ingurumen-arloko baimen berria ematea.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).